



**UNIBASQen EBALUATZAILEEN
HAUTAKETARAKO ETA KUDEAKETARAKO PROTOKOLOA**

AURKIBIDEA

Sarrera	1
Ebaluatzaileak hautatzeko baldintzak	1
Hautagaiak atzematea	5
Ebaluatzaileak hautatzea	5
Ebaluazio-batzordeen izendapenak.....	6
Ebaluazio-batzordeen jarduera	7
Ebaluazio-batzordeen jarraipena eta ebaluazioa	7

1. Sarrera

Agentziaren ebaluazio-prozesuetan parte hartuko duten ebaluatzaileak hautatu eta izendatzeko Unibasq-ek jarraituko dituen irizpideak eta prozedura biltzen ditu dokumentu honek.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate-Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 10. artikulua ezartzen duenaren arabera:

1.– Ebaluazio-batzordeak organo zientifiko-teknikoak dira, eta horien bidez garatzen ditu agentziak ebaluazio-, egiaztatze- eta ziurtatze-eginkizunak.

2.– Honako hauek osatzen dituzte ebaluazio-batzordeak:

*– Ospe handiko **akademikoek**. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetatik kanpoko akademikoek osatuko dute gehiengoa batzorde bakoitzean.*

*– Ebaluatu beharreko arloetako **ikasleek**, ikasleengan zuzeneko eragina duten programa eta jardueretan, Euskadiko unibertsitate-ikasleen partaidetzarako berariazko organoak izendatuak.*

*– Ebaluatu beharreko arloetan ospe handia duten **profesionalek**, titulazioak ebaluatzeko programetan.*

3.– Agentziak arautzen du ebaluazio-jardueretan ikasleek eta profesionalek nola parte har dezaketen, eta zein programatan parte har dezaketen.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate-Agentziaren Estatutuak onartzen dituen apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuak ezartzen duenez, ikasleek erakundeen eta irakaskuntzen ebaluazioan parte hartuko dute, baina ezin izango dute parte hartu irakasleen, ikertzaileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ebaluazioan eta egiaztapenean.

Era berean, dekretu horren 19. artikulua honako hau dio:

1.– Ebaluatzeko, egiaztatzeko eta ziurtatzeko eginkizunak betetzeko, Agentziak komunitate zientifikoaren laguntza eskatuko du ebaluazio-batzordeen bidez; jakintza-arloka edo espezialitateka edo gauzatu nahi den ebaluazio-prozesuaren zehaztasunen arabera eratuko dira horiek.

2.– Egin nahi den lanaren arabera erabakiko da zenbat kide izango dituen ebaluazio-batzorde bakoitzak. Edonola ere, emakumeek eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuko da, hau da, sexu bakoitzak % 40ko presentzia izango du gutxienez. Gainera, batzorde bakoitzeko kideetako bik gutxienez jakin beharko dute ebaluatuko den erabiltzailearen edo programaren hizkuntza.

2. Ebaluatzaileak hautatzeko baldintzak

Abian diren programetan ebaluazio-prozesuak egiteko hainbat profiletako ebaluatzaileak ditu Unibasqek.

Edozein batzordetako kide izateko, aholku batzordeak horretarako onetsitako gutxieneko baldintzak bete beharko dira. Ebaluazioari buruzko esperientzia balioetsi egingo da, baina ez da erabakigarria izango; izan ere, Unibasqek

kalitatearen ebaluazioa errazteko informazio- eta prestakuntza-elementuak eta -sistemak jarriko ditu ebaluatzaileen eskura.

Unibasqek jardunean dauden edo irakasle emerituak diren pertsonen hautagaitzak baino ez ditu onartuko.

Profil akademikoa

Ospe akademiko aitortua duten unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak izan beharko dute. Ahal dela, katedradunen kategoria akademikoa edo baliokidea izan beharko dute, edo kategoria edo figura horretarako behar den egiaztatzea.

Komeni da unibertsitateko gobernu- eta/edo kudeaketa-organoetan erantzukizun-karguren bat bete izana eta, ondorioz, unibertsitate-kudeaketari buruzko lehen eskuko ezagutzak izatea. Ebaluazioari buruzko esperientzia balioetsi beharreko alderdia izango da (bereziki titulazioen ebaluazioan); ebaluazio instituzionaleko prozesuetan esperientzia izatea ere aintzat hartuko da.

Irakasleen batzordeen kasuan, Espainiako Unibertsitate Sistematik datozen ebaluatzaileek, ahal dela, ikerketa-jardueraren bi ebaluazio positibo (seiurtekoak) gaindituak izan beharko dituzte, edo, bestela, baldintza baliokideak bete beharko dituzte (adibidez, ekoizpen akademikoari dagokionez). Unibasqekin lankidetzan jardun dezakeen ebaluatzailearen profil akademiko entzutetsua balioesteko, kontsultatutako iturriak Web Of Science (WOS), Google Scholar edo Researchgate izan daitezke, besteak beste.

Profil profesionala

Onetsitako lanbide ibilbidea duten izen handiko profesionalak izan beharko dute eta, ahal dela, gutxienez hamar urteko lan ibilbidea izan beharko dute. Horrez gain, ebaluatzen duten tituluaren MECES mailaren pareko prestakuntza maila izan beharko dute.

Goi-mailako hezkuntzaren kalitatea ebaluatu eta ziurtatzeko prozesuetan duten esperientzia eta unibertsitate-sistemaren ezagutza ere aintzat hartuko dira balioeste-prozesuan.

Ikasleen profila

Doktoretza edo master titulu batean, edo ebaluazioaren xede den jakintza arloko gradu tituluaren azken bi ikasturteetan matrikulatuta egon beharko dute. Aintzat hartuko da irakaskuntza ebaluatzeko eta kalitatea ziurtatzeko prozesuetan prestakuntza eta esperientzia izatea, ahal den neurrian. Balioetsiko da, baita ere, legez eraturako ikasleen elkarrekin ordezkaritza gisa parte hartzea eta ikasi dituzten edo ikasten ari diren tituluen kalitate-batzordeetan parte hartzea.

Ebaluatzen ari diren titulua edo ikastetxea ez den beste unibertsitate batekoak izan behar dute.

Nazioarteko profila

Eremu hauetako edozeinetan egindako lanak balioetsiko dira:

- Erakunde-plangintza: plan estrategikoak eta politika instituzionalak.
- Kudeaketa: kontseilu profesionalak, batzordeak.

- Irakaskuntza eta ikaskuntza: irakaskuntza-metodologiak eta ikaskuntza-emaitzak.
- Kalitatea ziurtatzea: kalitatea ziurtatzeko metodologiak, kalitatea hobetzeko planteamenduak, kalitate-adierazleen garapena.
- Ikasleen zerbitzuak: ikasleei laguntzea, behar bereziak dituzten ikasleei laguntzea eta/edo orientazioa ematea.
- Giza baliabideak: biziarteko ikaskuntza, garapen profesionala, giza baliabideak, enplegarritasuna.
- Ikerketa zientifikoa: proiektuak, laborategiak, ezagutzaren transferentzia.
- Artea: proiektuak eta lantegiak.
- Nazioartekotzea: nazioarteko erakundeekin lankidetzeta, ikasleen eta irakasleen mugikortasuna.

3. Hautagaiak atzematea

Unibasq-ek eskura dituen baliabide guztiak ezarriko ditu, agentziak berak kudeatzen dituen programen barruan ebaluazio-, egiaztatze- eta ziurtatze-lanetan parte har dezaketen langile akademikoak, ospe handiko profesionalak eta ikasle nazionalak nahiz nazioartekoak erakartzeko, eta baita ere nazioarteko ebaluazio-programetan beste agentzia batzuekin lankidetzan aritu nahi duten pertsonak erakartzeko.

Ebaluatzaileak erakartzeko iturri posibleen artean, honako hauek aipa daitezke: Agentziak helburu horretarako garatu duen Ebaluatzaileen Bankua; aholku batzordeak edo beste ebaluatzaile batzuek egindako proposamenak; ebaluazio-agentzien artean baimendutako datu-baseak trukatzearen ondoriozko proposamenak; nazioarteko zein estatuko agentzien sareak; eta sare sozial eta profesional digitalak.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako **langile akademikoei** dagokienez, Ebaluazio Batzordeetako eta Unibasq-eren Aholku-batzordeko kide atzerritarren laguntza eskatuko da, baita ENQAko eta beste ebaluazio-agentzia batzuen ere.

Ebaluatzaile lanetan laguntzen duten **profesionalak** elkargoen edo elkarte profesionalen, merkataritza-ganberen eta bestelako iturrien bidez (adibidez, lineako profesionalen sare sozialen bidez) atzemango dira, ospe handiko profesionalak lortzeko asmoz.

Ikasleen datu-basea osatzeko, ebaluazio-agentziekin, unibertsitateekin eta ikasle-elkarteekin harremanetan jarriko gara, eta, ahal den neurrian, lankidetzarako hitzarmenak egingo ditugu ikasleen formakuntzarako eta datu-base hori aipatutako agentzia guztiak onar dezaten. Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Kontseilu Aholku-emaileari proposatuko zaizkio ebaluatzaile izateko profil eta prestakuntza egokiak dituztenak.

4. Ebaluatzaileak hautatzea

Unibasq-eren ebaluatzaileak hautatzeko irizpideetan, kontuan hartu dira European Association for Quality Assurance in High Education (ENQA) erakundeak ezarritako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideak eta European Consorteca for Creditacium (ECA) erakundeak adostutako Arituak hautatzeko printzipioak.

Ebaluazio-batzorde baten prestakuntza edo txosten bat egiteko pertsonak behar direnean, eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren eta Unibasq-eren aholku batzordearen proposamenari jarraituta, zuzendaritzak izendatuko dituen Ebaluatzaileen Bankuko ebaluatzaileak hautatuko dira. Ikasleen kasuan, Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen

Kontseilu Aholku-emaileari proposatuko zaizkio organo horrek ebaluatzaile izateko profil eta prestakuntza egokia dutenak. Horregatik, nahiz eta kandidaturak arestian aipatutako iturrietatik hartu, izendapena egin ahal izateko, salbuespenezko kasuetan edo ezinbesteko kasuetan izan ezik, Unibasqeren Ebaluatzaileen Bankuan erregistraturik egon beharko dute, eta haiek jarriko dira hautagaiekin harremanetan, horien erabilgarritasuna eta eskura dauden datuen zuzenketa baieztatzeko.

Ebaluazio-batzorde bateko kide izango diren pertsonak hautatzeko prozesuan, ahaleginak egingo dira hautatutako kideak batzordearen jakintza-arlokoak izan daitezen, eta, aldi berean, batzorde bakoitzean gutxienez euskaraz ebaluatzeko gaitasuna duten bi pertsona daudela ziurtatuko da.

Ebaluazio-batzorde guztien kasuan, ahalegina egingo da ebaluatzaileek beren jardura unibertsitate publiko zein pribatuetan gauza dezaten, 13/2012 Legearen 6. artikuluko 4. puntuan ezarritako gizonen eta emakumeen arteko oreka errespetatzen dadin, eta, profil akademikoa duten pertsonen artean, gehienak Euskal Unibertsitate Sistematik kanpokoak izan daitezen.

Agentzia, zuzendaritzaren izenean, hautagaiekin harremanetan jarriko da, haiei beren hautagaitza proposatu dela jakinarazteko.

Beren eginkizunetan aritzeko, eta ebaluazio prozesuaren ezaugarrien arabera, Batzordeek adituen aholkularitza eskatu ahal izango dute. Pertsona horiek bakarka edo batzordeetan parte hartu dezakete. Aditu horiek Ebaluazio Batzordeetako kideak hautatzeko erabiltzen diren irizpide berak aplikatuz hautatuko dira.

5. Ebaluazio-batzordeen izendapenak

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, agentziaren zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatu eta kargutik kentzea, aholku batzordeak hala proposatuta.

Ebaluazio Batzordeetako kideak hiru urterako izendatzen dira, eta ezingo dira berriz izendatu ebaluazio-programa berean harik eta kargua utzi eta hiru urte igaro arte.

Agentziaren zuzendaritzak zehaztuko du batzordeetako kideen kopurua, deialdi bakoitzaren beharren arabera.

Batzordeen osaera agentziaren web-orrian argitaratuko da, ebaluatzaile bakoitzaren curriculum laburrekin batera, Europako estandarrek ezartzen dituzten baldintzak betez.

Hautagai-zerrenda guztiak baja eman dezakete hala erabakitzen dutenean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoaren arabera, baita Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa ere, ebaluatzaileak@unibasq.eus-i zuzenduta.

6. Ebaluazio-batzordeen jardura

Ebaluazio-batzordeak osatzen dituzten pertsona guztiak beren izenean egiten dute lan, irizpidea edozein dela ere, eta ez kide diren kolektibo edo erakundearen ordezkari gisa.

Ebaluazio-batzordeen jarduna kolegiatua da.

Ebaluazio-batzordeek Unibasqeren Etika eta Berme Kodearen arabera jardun beharko dute, “Etika-kodea onartzea eta konfidentzialtasunaren, inpartzialtasunaren eta interes-gatazkarik ezaren adierazpena” izeneko eranskina sinatu beharko dute. Eranskin horretan, haren funtzionamendua ezartzen da.

Unibasqen lankide diren pertsona guztiak agentziak sustatzen dituen balioei atxikiko zaizkie, hala nola, objektibotasuna eta osotasuna ebaluazio-prozesuen garapenean.

7. Ebaluazio-batzordeen jarraipena eta ebaluazioa

Ebaluazio-batzordeek egiten duten lana etengabe hobetzeko irizpideak aplikatzeko, urtero balioetsiko da haien lana. Alde batetik, agentziaren teknikariek ebaluatuko dute ebaluatzaile bakoitzaren lana modu formalean egin den. Era berean, parte hartu duten prozesuaren ebaluazioa egiteko eskatuko zaie ebaluatzaileei, urtero.